

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko uztailaren 21eko bilera arruntean (3/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

**5. Gaia:** Lanpostuen zerrenda aldatzeko erabakia.

**"Lehenengoa.**- Ondoren zerrendatzen diren lanpostuei esleitutako derrigortasun-data zazpigarren plangintzaldiaren amaiera-datara atzeratzea, **hau da, 2027ko abenduaren 31ra arte:**

LANPOSTUA			ORGANIKO FUNTZIONALA	
LANPOSTUA	IZENA	LAG	ORG.	IZENA ORG.
1007	BIRJINETXE A.Z-ko ZUZENDARIA	0001	22102	BIRJINETXE Z.A
1201	ZERBITZU OROKORREN EKONOMIALARIA	0001	2322	EKONOMIA-ETA AURREKONTU-ARLOA
4071	BIRJINETXE Z.A-ko ARDURADUNA	0001	2210222	BIRJINETXE Z.A-ko ZERBITZU OROKORRAK

**Bigarrena.**- Aurreko atalean aipatutako lanpostuen zerrendan egindako aldaketak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea. Aldaketa horiek Gobernu Batzordean onartzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

**Hirugarrena.**- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, arrazoitzat balio du ebazpen honen aurrekarietan jasotako txostenak.

**Laugarrena.**- Ebazpen honen berri ematea interesdunei, Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari, Hautaketa eta Hornikuntza Burutzari, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari eta GUFEn ordezkariak duten sindikatuei.

**Bosgarrena.**- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, erabakia jakinarazi/argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera."

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

